

eman ta zabal zazu



---

# ERIZAINZA ZERBITZUEN KUDEAKETA ETA KALITATEA

IRRINTZI FERNÁNDEZ AEDO  
SENDOA BALLESTEROS PEÑA

2016

ERIZAINZA GRADUA – MEDIKUNTZA ETA ERIZAINZA FAKULTATEA – LEIOA

---

## ARIKETEN EBAZPENAK

**BIGARREN ARIKETAREN EBAZPENA:****IRITZIAK IRTZI**

Ariketa hau egiteko lehenengo gauza Brainstroming-ari buruzko informazioa jasotzea zen. Behin teknika hau ondo ulertuta zenuenean jolasa aurrera eramatea zen, ariketan ipinitako irizpideekin. Ondoren, teknika hau aurrera eramateko arauak (zuk topatu behar izan dituzunak).

**BRAINSTORMING**

- Egitura gabeko teknika, non pertsonak burura datorkien lehenengo ideiak esaten dituzten.
- Gai nagusi baten inguruan jarduten da
- Edozein pertsonak bere ideiak esan ditzake.
- Ideia berrien jariora errazten du
- Talde lana dinamikoa
- Ideia guztiak onartuak izan behar dira. Inolako kritikarik gabe
- Kantitatea eta originaltasuna baloratu, ez kalitatea.

**Bilkurarako beharrezko elementuak:**

- Idazkari bat (zuk egindako lana)
- Moderatzaile bat (zuk egindako lana)
- Inguru lasai eta erosoan bermatu:
- Jokuak egin
- Partaideak jaten utzi

- Bilkura mugatzea: Iraupena kontrolatu (25' gehienez). Bilkura luzeetan interesa galtzeko joera dago.
  
- Gehikuntza eta Ebaluazioa:
  - Pasaden egunean burututako bilkuraren inguruan daukaten ideiak berriak esatea
  - Ideiak guztiak ebaluatzea eta egokienak aukeratzea.

ERANTZUNA: Gizona faroan bizi zen langilea zen. Bart gauean faroaren argia piztea ahaztu zitzaion eta ondorioz itsasontziak istripua eduki zuen. Horregatik erabakitzen du bere buruaz beste egitea.